Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko apirilaren 14a, asteazkena — 67 — Miércoles, a 14 de abril de 2021

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ANDOAINGO UDALA

### Errentak eta Ordainarazpenak

*Ordenantza fiskalen aldaketaren hasierako onespena (7.9, 7.10 eta 7.16 eranskinak).*

Bere espedientean jasotzen diren beharrrezko azterketak eta jarduketa egokiak egin ondoren, Udalbatzaren Osoko Bilkurak, 2021eko martxoaren 25ean egindako bilkuran, tasa hauen hasierako onespena eman zion:

7.9. Udal Musika Eskola.

7.10. Galardi Haurreskolako zaintza eta egonaldiari dagokiona.

7.16. Jarduera Fisiko eta Kiroletako udal zerbitzua.

Hartutako akordioa eta horretarako izapidetutako espedientea jendaurrean erakutsiko dira, Gipuzkoako Ondasun Lokalak erregulatzen dituen 11/1989 Foru Araueko 16.1 artikuluan xedatutakoa betez, Aldizkari Ofizial honetan iragarkiak argitaratuz.

Era berean, kontuan izanik ordenantzak udal antolaketa administratiboaren barruko esparrua gainditzen duela, eta, hortaz, Andoaingo herritarren interesengan eragina izan dezakeela, ezinbestekoa da aipatu ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeaz gain komunikazio orokorrerako mekanismo osagarria ere abiaraztea. Horretarako, udaletxeko iragarki-taulatan, udal web-orrian eta prentsan argitaratuko da eta elkarteen udal erroldan izena emanda duten elkarte guztiei helaraziko zaie. Betiere, herritarren parte-hartzearen bidez ordenantzaren egokitasuna bermatzeko helburuarekin, Konstituzioaren Legezko testuaren 105. artikuluan aldarrikatzen den moduan.

Jendaurrean jartzea eta interesdunen entzunaldia ondorengo arau hauei jarraiki gauzatuko da:

*a) Espedientea non eskuratu daitekeen:* Errenta eta Ordainarazpenen bulegoetan (Kontuhartzailetza), 08:00etatik - 14:30ra eta udan 08:00etatik - 14:00etara.

Andoaingo Udalaren web orrian, www.andoain.eus, ere eskuratu ahal izango da: Informazio gehiago eska daiteke errentak@andoain.eus helbide elektronikoan.

*b) Espedientea aztertzeko eta, hala balegokio, alegazioak eta iradokizunak aurkezteko epea:* 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN edo prentsan argitaratzen den azken egunaren biharamunetik kontatuta.

*c) Nork aurkez ditzake alegazioak eta iradokizunak:* Edozein pertsona fisiko edo juridikok.

*d) Alegazioak eta iradokizunak, urriaren 1eko 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, ondorengo hauetan aurkeztu daitezke:*

— Udalaren www.andoain.eus web-orriko egoitza elektronikoan.

— Udaletxean dagoen Sarrera-Erregistroan (Andoaingo Udala, Goikoplaza, z/g 20140 Andoain), jendaurreko-ordutegian: 8:00 - 14:30 (8:00 - 14:00 udan).

— Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren Sarrera Erregistroetan, sinatutako hitzarmenaren arabera.

## AYUNTAMIENTO DE ANDOAIN

### Rentas y Exacciones

*Aprobación inicial modificación ordenanzas fiscales (anexos 7.9, 7.10 y 7.16).*

Tras los estudios y actuaciones pertinentes que constan en el expediente de su razón, el Pleno Municipal en sesión celebrada el 25 de marzo de 2021 acordó, con carácter inicial, la modificación de las siguientes tasas:

7.9. Escuela Municipal de Música.

7.10. Asistencia y estancia en la Escuela Infantil Municipal Galardi.

7.16. Servicio Municipal de Actividad Física y Deporte.

El acuerdo adoptado y el expediente al efecto instruido, se someten a información pública en cumplimiento de lo dispuesto en el art. 16.1 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, mediante publicación de anuncios en este medio oficial.

Asimismo, y al tratarse de una ordenanza que excede del ámbito puramente doméstico de la organización administrativa municipal y puede afectar a los intereses de los/as vecinos/as de Andoain, se hace preciso junto a la publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, el mecanismo complementario de su comunicación general con la publicación en los tablones de anuncios municipales, web municipal y prensa y notificación a las asociaciones inscritas en el Registro Municipal de Asociaciones. Todo ello, para garantizar el acierto y oportunidad de la ordenanza, a través de la participación ciudadana tal como preconiza el artículo 105 del texto legal constitucional.

La información pública y audiencia se hará conforme a las siguientes reglas:

*a) Lugar donde se encuentra a disposición del público el expediente:* en Rentas y Exacciones (Intervención), en horario de 8:00 hs a 14:30 hs y 8:00 hs a 14:00 hs en verano.

También en la web municipal www.andoain.eus. Se podrá solicitar información a través del correo electrónico en la siguiente dirección: errentak@andoain.eus.

*b) Plazo para examinarlo y en su caso para presentar alegaciones y sugerencias:* 30 días hábiles, a contar del día siguiente al de la publicación del último anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa o en prensa.

*c) Quiénes pueden interponer alegaciones y sugerencias:* cualquier persona física o jurídica.

*d) Las alegaciones y sugerencias, conforme a lo dispuesto en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre se podrán presentar en:*

— En la sede electrónica de la web municipal www.andoain.eus.

— En el Registro de Entrada del Ayuntamiento, situado en la Casa Consistorial Goikoplaza, s/n 20140 Andoain en horario de atención al público: 8.00 - 14:30 hs (8:00 - 14:00 verano).

— En los Registros de Entrada de la Diputación Foral de Gipuzkoa y del Gobierno Vasco, según convenio.

EK\CV GAO-I-2021-02236

— Postetxeetan.

Aipatu epea igaro eta alegazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, araudia behin betiko onartu dela ulertuko da.

Andoain, 2021eko martxoaren 26a.—Maider Lainez Lazcoz, alkatea. (2236)

— En las Oficinas de Correos.

Si transcurrido el referido plazo, no se presentara alegación o sugerencia alguna, el referido acuerdo se considerará aprobado con carácter definitivo.

Andoain, a 26 de marzo de 2021.—La alcaldesa, Maider Lainez Lazcoz. (2236)

EK\CV GAO-I-2021-02236